

"ARTZAIN BATEN ERIJOTZEAN"

I

Zidarrezko bost sastakai
Nok jasan daikez aldian?
Zidarrezko bost sastakai
Zeure itzak dantza-aldejan.

Lapur-gaba baltz onetan
Zaldi zurixka arin ua.
Artzain: zer dok begijetan?
Erijo'k ete arua?

Espa urten yaken lerdijai;
A zan espia gau baltzean!
Zidarrezko bost sastakai
Nok jasan daikez aldian?

II

Urrun zara, urrun mendija,
Borde ori urrunago!
Soil dator zaldi zurija:
Zeure jaube illa nun dago?

Arin zuaze ler-barna
Pagoen itxal baltzera!
Ixarrok, bedartzak barna!
Artzañorak, lats artera!
Zelan iretargi-izpijai
Barre egijen lur ganian!
Zidarrezko bost sastakai
Nok jasan daizek aldian?

III

Saspi arratsez ardijak
Ekin eutsen negarrari.
Saspi goxaldez tordantxak
Ekin eutsen ixillari.

Orok negar egin eutsen,
Orok, neska batek ezik.
Ura joian negar baten,
Lorak ziran zimeldurik.

Ilda zañ-arren, bai nasai
Zauririk ez aragijan!
Zidarrezko bost sastakai
Sakon eukozan ariman!

1. Deskodifikazioa

Olerkiaren mezua edo "theme" hauxe dugu: maitasun ezak edonor etsiarazi eta hil dezake.

Gaia, "subject": Artzain bat dantzara joan da eta maite duen neskatzak zapuztu egin du. Artzaina etsiturik bere etxolara joan da zaldiz cta bidean hil egin da.

Gertakizuna ez da bat batean esaten. Emeki-emeki idarokitzten da, motean poliki-poliki lore osoa zabaltzen den bezala.

Ez da artzainaren bizitzaz mintzatzen, ze harreman zuen neskatzarekin, ze neskatxa zen, zer esan zion neskatzak.

Unerik tragicoena azken bertsoan ikusiko dugu, sentimenduz betea.

1.1. Abapaldien komentarioa

I

1.1.1. Olerkia leloarekin hasten da. Badirudi artzaina bera edo mintzatzalea neskatxa batekin mintzo dela : "zeure hitzak" esaten baitu. Bost sastakai ditu artzainak, neskatzaren mespreziozko bost hitzak. Zein hitz izan diren ez dugu zehazki jakingo. Asma litezke, ordea.

1.1.2. Artzaina zaldi zuriaren gainean doa eta balbeak iota dago. Mintzatzalea zaldiarekin hika ari da. Gau beltza da, artzainaren arimako gaua bezalakoa.

1.1.3 Artzain bihotz zauritua ikusirik, lerrak antsiez eta hasperenez hasi dira.

II

Mintzatzalea beste urrats dagi. Aurreko hiru ahapaldietan artzaina zauriturik ikusi dugu. Bigarren urrats honetan artzaina hila da. Mintzatzailak galde egiten dio zaldiari, nagusia non ote dagoen.

1.1.4. Artzaina bizi den mendia eta etxola urrun daude. Ez du hara heltzeko astirik izan. Zalditik behera erori da, zaldia hutsik baitator.

1.1.5. Mintzatzailak izarrei eta artzanorei artzaina dagoen tokira joateko

agintzen die.

1.1.6. Artzaina hilik dago. Haren ahoan, ordea, irribarrea da, hildako askorengan gertatzen den bezala. Badirudi ilargiari irribarre egiten diola.

III

Hirugarren urrats aldi honetan artzainaren heriotz ondoko gertakariak kontatzen zaizkigu. Eta heriotzaren arrazoia ere garbi ikusten dugu azken bi bertsoetan.

1.1.7. Ardiek eta hegaztiek negar egin zuten.

1.1.8. Ardiek eta hegaztiek ez ezik, beste guztiak ere negar egin zuten. Ura

ere errekan antsiaz; loreak zimeldu egin ziren. Dolu giro horretan neskatxa batek bakarrik ez du negarrik egiten. Hitz gororrak esan zizkion neskatzak, hain zuzen ere.

1.1.9. Istorioaren haria daramanak orain garbi adierazten digu lehenago hitzerdika esandakoa. Ez zuela gorputzean zauritik, ariman baizik. Hortik hil zela. Olerkiak hemen iristen du klimax.

2. Metrika

Zortzi silabako bertsoak dira, lauko txikiak, cuartetak, arte tipian: abab.

"Maitale kutuna"ren metrika ez litzateke ongi moldatuko kontakizun honetarako. Bertso luzeak gogoetak eta barneko hausnarketak egiteko egokiagoak dira. Gertakariak kontatzeko arte txikiko bertsoak aproposagoak. Lasterra ematen diote kontakizunari.

"Ningún verso de arte menor iguala en difusión y popularidad al octosílabo: de él se valió y sigue valiéndose la poesía tradicional para cantar hechos históricos, legendarios y novellescos; lo han cultivado con esmero los poetas cultos; ha sido el metro principal del teatro clásico español, y la canción popular lo viene empleando desde los orígenes de nuestra literatura". (Ikus bibl. Lapesa, Rafael, 83 or.)

3. Balada

"Artzain baten erijotzean" balada da.

Baladak poema narratiboak dira. Herri baladak (folk) edo literarioak, landuak, kultuak izan litezke. Batzutan, hemen bezala, errefraua edo leloa izaten dute. Herri baladek gehienetan balada landuek baino zehatzago kontatzen dituzte gertakizunak.

Balada landuek, "Artzain baten erijotzean" den bezala, zuzen kontatu baino iradoki egiten dute gertakaria, lirikoagoak izaten dira eta hizkera hautatuagoa erabiltzen dute. Herri badei maiz moral kutsua antzematen zaie.

Baladak dramatikoak izaten dira anitzetan. Maiz alderdi dramatikoak eramatzen dio alderdi narratiboari. Elkarrizketa ere aurki liteke.

3.1.

Ingeles literaturan "Frankie and Johnnie" herri balada oso entzutetsua duzu (Ikus bibl. Knickerbocker and Reninger, 254-255 orr.).

Emakume batek bere gizona hil du, beste emakume batekin ibili delako. Emakumea bera urkatu egingo dute.

"Frankie and Johnnie were lovers, O, how that couple could love.
Swore to be true to each other, true as the stars above.
He was her man, but he done her wrong!"

Frankie she was his woman, everybody knows.
She spent one hundred dollars for a suit of Johanny's clothes.
He was her man, but he done her wrong.

Frankie and Johnny went walking, Johnny in his bran' new suit,
"O good Lawd," says Frankie, "but don't my Johnny look cute?"
He was her man, but he done her wrong.

Frankie went down to Memphis; she went on the evening train.
She paid one hundred dollars for Johnny a watch and chain.
He was her man, but he done her wrong.

Frankie went down to the corner, to buy a glass of beer;
She says to the fat bartender, "Has my loving man been here?
He was my man, but he done me wrong."

"Ain't going to tell you no story, ain't going to tell you no lie,
I seen your man 'bout an hour ago with a girl named Alice Fry.
If he's your man, he's doing you wrong."

Frankie went back to the hotel, she didn't go there for fun,
Under her long red kimono she toted a forty-four gun.
He was her man, but he done her wrong.

Frankie went down to the hotel, looked in the window so high
There was her lovin' up Alice Fry;
He was her man, but he done her wrong.

Frankie threw back her kimono, took out the old forty-four,
Roota-toot-toot, three times she shot, right through that hotel door.
She shot her man, 'cause he done her wrong.

Johnny grabbed off his Stetson. "O good Lawd, Frankie, don't shoot."
But Frankie put her finger on the trigger, and the gun went roota-toot-toot.
He was her man, but she shot him down.

"Roll me over easy, roll me over slow,
Roll me over easy, boys, 'cause my wounds are hurting me so,
I was her man, but I done her wrong."

With the first shot Johnny staggered; with the second shot he fell;
When the third bullet hit him, there was a new man's face in hell.
He was her man, but he done her wrong.

Frankie heard a rumbling away down under the ground.
Maybe it was Johnny where she had shot him down.
He was her man, and she done him wrong.

"Oh, bring on your rubber-tired hearses, bring on your rubber-tired hacks,
They're takin' my Johnny to the buryin' groun' but they'll never bring him back.
He was my man, but he done me wrong."

The judge he said to the jury, "It's plain as plain can be.
This woman shot her man, so it's murder in the second degree.
He was her man, though he done her wrong."

Now it wasn't murder in the second degree, it wasn't murder in third.
 Frankie simply dropped her man, like a hunter drops a bird.
 He was her man, but he done her wrong.

"Oh, put me in that dungeon. O, put me in that cell.
 Put me where the northeast wind blows from the southeast corner of hell
 I shot my man 'cause he done me wrong."

Frankie walked up to the scaffold, as calm as a girl could be,
 She turned her eyes to heaven and said, "Good Lord, I'm coming to thee.
 He was my man, and I done him wrong"

Leloa "He was her man, but he done her wrong" oso ezaguna da ingeles literaturan. Baladaren azken leroan, berriz, aldatu egin da eta emaztekiak berak gizonari kalte egin diola aitortzen du.

Balada bion arteko ezberdintasunak agirian daude, balada landuari (Artzain...) eta herri baladari (Frankie...) dagokien bezala.

Balada landuago hizkeran/ herri baladan eguneroko hizkera
 Kontakizuna iradokia/zehazki kontatua
 Leloa aldatuz doa/ azkenean aldatzen da
 Sentimendu handiago landuan/objektiboago, bertsolarien moduan
 Lirikoago/narratiboago
 Elkarrizketarik ez/bai
 Ez da moralik/bai
 Emaztekiak egin dio kalte/gizonak
 Hitzez hil du/pistolaz (Ikus bibl. Cleanth Brooks & Robert Penn Warren)

3.2. Balada eta artzain elegia

"Artzain baten erijotzean"en "artzain elegia"ren moldeak ere hartu dira. Artzain elegietan topiko usua da natura ere negatiz egotea. Gehienetan, baina, artzain-elegietako azken ber-

tsoetan kontsolamendu bertsoak jartzen dira, artzaina toki ho-bean dagoela eta bere nahigabeak joan direla esanez.

Olerki honek, ordea, bukaera garratza du, indartsua.

3.3. Balada eta erromantzea

Balada, erromantzearen aldean, lirikoagoa da. Hemen dago differentziarik handiena bion artean.

Bestalde, erromantzearen gai nagusia epikoa izan ohi zen, geroago beste gai asko erabiliak izan baziren ere, artzain gaiak berak ere tartean.

Erromantze gehienek puntu asonantea erabiltzen zuten. Baladan maiz kontsonantea eta bertso guztietarako.

4. Egitura

Lauaxeta oso axolaturik zen olerkien egituraz. Arkitektura senaz jasotzen zituen ahapaldiak. Badakigu parnasiarrek ere arkitektura moldeak oso gogarakoak zituztela.

Aztertzan ari garen olerkian egitura "Maitale kutuna"n baino askoz nabariago dugu. Simetria nabari-nabaria da. Olerkiak hiru zati ditu eta zati bakoitzak hiru ahapaldi. Hiru zatien azken bertsoak leloarekin bukatzen dira. Hirugarrenean leloa aldatu egiten da, bide batez herioaren egiazko arrazoia ematen zaigularrak.

Halere, egitura ezberdina dute lehenengo zatiek alde batetik eta bigarrenak eta hirugarrenak bestetik.

Lehengo zatiak hiru maila ditu: errefrauua, gertakizuna eta errefrauua. Olerkia komentario nagusiarekin, hots, errefrauarekin hasten da, gero gertakizun konkretua azaltzen du eta hirugarren ahapaldiaren bukaeran errefrauua dator.

Beste bi zatietan bi maila daude: gertakizuna eta azkenean leloa.

4.1. Leloaren funtzioa

Ikusi dugunez, olerki honetan leloak garrantzi handia du.

Leloak pisuzko funtzioak betetzen ditu.

a. Mintzatzaleak bihotzean duen gogoeta azpimarratzea. Leit-motiv bihurtzen da. Tesi bat bezala da. Irakurleari burutan sartzen zaio.

b. Gertakariak aitzin arazten ditu. Leloa edo errefrauua ez da errepikatze hutsa. Olerkia aurteratu ahala, zentzuz betetzen da. Isotopia sortzen da.

Olerki honetan, bigarren aldian, errefrauua hobeki ulertzen dugu: zilarrezko sastakai honietaz artzaina hil egin dela badakigu.

Eta hirugarrenean, errefrauaren zentzu osoa jasotzen dugu: sastakai horiek ez ziren fisikoak, arimakoak baizik. Bestalde, leloak eritmoari mesede egiten dio.

c. Simetria sortzen du: errefrauaren bidez olerkia eraiki bikain bat bezala jasotzen da.

Erregularitasuna eta simetria giza izpirituan berezkoak direla esaten zuten Baudelaire-k eta Poe-k.

Poesia paralelismoz eta kontrastez jasotzen da

d. Leloa errepikatzeak atsegina estetikoa sortzen du.

“Bis repetita placent” esaten zuen Horaziok bere *Ars poetica-n*.

Eta Emil Etaiger-ek: “Lo que guarda a la poesía lírica del peligro de deshacerse es únicamente la repetición”. (Ikus bibl. Emil Staiger, 42 or.)

Aspaldiko teknika da errepikatza. Salmoak horrelaxe dau-de jasoak.

Musikaren alderdi oinarizkoa errepikatza da. Tema behin eta berriz azaltzen da musika konposizioetan, bai sinfonia eta lan handietan eta bai kantuetan ere.

Arkitekturan ere errepikatzeak paralelismo atsegingarria sortzen du, begien atsegingarri. Horrelaxe tenpluak eta eraikiek. Gogora, adibidez, Partenona.

R. Jakobsonek honela dio: "La función poética es fundamentalmente la función recurrente del lenguaje".

Eta beste toki baten: "Toda repetición susceptible de atraer la atención de un mismo concepto gramatical, se convierte en procedimiento poético eficaz". (Ikus bibl. Jakobson R., 214 or.)

Beraren ustez bertsoa bere izatez figura foniko errekurrente da (Ikus bibl. Maria del Carmen Bobes Naves).

Iuri Lotman-ek ere gauza bera esaten zuen: "Errepikatzea da bertsoen oinartzko egitura" (Ikus bibl., 204 or.)

Entzun Lazaro Carreterri: "la repetición está en la entraña misma del verso libre, como su fundamental principio constitutivo". (Ikus bibl. F. Lazaro Carretero).

5. Testuaren azterketa

5.1. *Soinu-maila (maila fonikoa)*

Poetek maiz konturatu gabe, gaiari dagozkion hitz egokiak aukeratzen dituzte.

Lehengo ahapaldian *arekin* batera *i* nahikorik edireten dugu. Bokaletan *i* da zorrotzena. Sastakaiaak bihotz barrenean sartu zaizkiola adierazteko bokal hori duten hitzak aproposak izan litzke: *zidarrezko, itzak, aldijan*.

Bigarren ahapaldian *u* batzuk aurkitzen ditugu: *lapur, ua, arua*. Gauari ongi lotuak. Oroi gaitezen Gongoraren esaldi famatuaz: "Infame turba de nocturnas aves". Norbait heldur arazteko ez diogu *iiiiiiiiii* esaten, *uuuuuuuu* baizik. Euskaraz "mamu" esaten dugu, haurrak izu arazteko.

Laugarren ahapaldian txistukarien multzoa ikusten dugu: "Soil dator zaldi zurija". Zaldiaren higidura *zalua* adierazten zaigula dirudi, irristaka baletor bezala.

*A eta r pilotxoa entzuten dugu bosgarren ahapaldian. Soinu eufonikoa sortzen da: "Ixarrok, bedartzak barna! Artzañorak, lats artera!". Gauza bera esan dezakegu zazpigarren ahapaldian *arekin*: "Saspi arratsez ardijak".*

Soinu goxoa lortu du zortzigarren ahapaldian ere *z ren bildet*: "lorak ziran zimeldurik".

5.2. maila morfosintaktikoa

Izenlagunak ia denak objektiboak dira. Nasai kontsidera dezakegu subjektibotasunez bustirik, baina kanpotik ere ikus dai-teke pertsona bat nasai dagoela.

"Maitale kutuna" olerkian izenlagunetarik asko subjektiboak dira, olerkiaren mintzatzalea lehengo pertsonan elekatzen baita. Bere neskatxarenganako sentimendu subjektiboak adierazten ditu.

Oraingo olerkian, ordea, kontakizun objektiboa hobeki uz-tartzen da hirugarren pertsonarekin eta izenlagun objektiboe-kin. Substantiboezin, ostera, giro penagarria eta deitoragarria iritsi du, maisuki iritsi ere bai.

5.3. perpausak

Perpausak baladari dagokion bezala, bakunak dira denak (9. ahapaldiko 1,2 ezik: "Ilda zan-arren, bai nasai"). Draman ere gauza bera ikusi ohi da. Esaldi errazak, simpleak dira, inongo zaitasun gabekoak.

5.4. Teknika

5.4.1. Dramatizazioa

Teknika dramatikoa darabil Lauzetak. Gertakizuna ez dago abstraktuki azaldurik, konkretuki, bizirik baizik. Mintzatzaleak aktanteekin hitz egiten du.

Artzainaren heriotza alde batetik erdi adierazia, iradokia baldin badago ere, bestetik begien aurrean izango bagenu bezala ikusten dugu.

"all poetry, including even short lyrics or descriptive pieces, involves a dramatic organization" Poesia guztiek, lirika poema laburrek eta deskribapenek ere bai, drama itxura hartzen dute. (Brooks Cleanth and Robert Penn Warren. Ikus bibl. 35 or.)

Dramatizazioa jokabide ezberdinez lortzen du.

a. Pertsonifikazioaren bidez. Animaliak eta natura pertsona araziz.

espa urten yaken lerdijai 3,1. Haizeak leren puntak makur araziz eta zabulunduz ateratzen duen zarata intziria duzu.

*iretargi izpabaj barre egijen 6,1-2
ardijkak ekin eutsen negarrari 7,1-2
tordantxak /ekin euisen ixillari 7,3-4*

b. Apostrofoaren bidez.

*Zaldi zurixka arin ua 2,2
Urrun zara, urrun mendija 4,1
Bostgarren ahapaldi osoa apostrofea da.*

Dramari bizitasuna ematen dioten harridurazko eta galde-razko moldeak nabarmen daude.

5.4.2. Aldia.

Lauaxeta aldiaren baltakizunez erabat oharturik zegoen. Joko zuhurrak egiten ditu, aldiak aldizkatuz.

Hil aurreko ahapaldiak, I eta II, orainaldian emanak daude. Gertakaria zuzen begien aurrean ezartzen digu, oraintxe ber-ton gertatzen ari balitz bezala. Dramatizazioari laguntzen dio.

Inperatiboak ere hurbiltasun hori sortzen du:

Arin zuaze ler-barna 5,1

Aditz nahikorik mugimenduzkoak dira: *ua, arua, dator*. Puntu motxeko bertsöek ere arintasuna ematen diote olerkiari.

Arzaina hil gerotzikako gertakizunak, osteria, iragan aldean emanak daude. Iraganaren da, hain zuzen ere, kontaketa guztien aldi nagusia.

Iraganaren bidez, gertakizunek lehenagoko usaina eta se-riotsuna hartzen dituzte, aspaldiko zauriaren oroitzapena be-nitzen hasiko balitz bezala. Dramatizazioa iraungitzen da eta beraren ordez etsipena gelditzen.

5.4.3. Paralelismoak

Paralelismoak simetria eta atsegin estetikoa sortzen du. Le-loaz mintzatzean aipatu dugu.

Paralelismoa beste bidez ere fortzen du.

Anafora: *zidarrezko... zidarrrezko* 1,1 eta 1,4

Urrun zara, urrun zara... urrunago 4,1-2

Saspi arratsez saspi goxaldez 7

ekin eutsen... ekin eutsen 7

Orok... orok 8

Paradoxaz ere baliatzen da esaldia azpimarratzeko:

Ilda zan arren, ... zauririk ez aragian 9,1-2

6. Sinboloak eta irudiak

Olerki honetan sinboloen bidetik jo du Lauaxetak. "Sugerent c'est l'art". Gauzak zuzenki adierazi beharrean, zeharka iradoki.

Hizkuntza poetikoaren berezitasunik handienetako bat balio erreferentzialik ez izatea da (Ikus bibl. Durand, Gilbert)

6.1. Zidarrezko

"*Zidarrezko bost sustakai nok jasan daizek aldean*" 1,1 esaldiak balio denotatiboaz gainera, sinbolikoa du. Ahapaldi

honetan berton esango digu sastakai horiek neskatxaren hitzak direla.

Zilarrak garbitasuna, zuritasuna, balio noblea adierazten du. Neskatxaren zuritasuna, balioa, garbitasuna iradokitzenten dizkigu eta hitz horiek artzainarentzat balio handikoak direla.

6.2. *Bost*

bost sastakai 1,1

Euskaraz baditu denotatiboaz gainera esanahi bereziak.

“Sarri edo asko” adierazten du:

“... bortzeten (sarri) gerotzik negar egiten dut Zuberoagatik”
(Agur Zuberoa).

Bost aldiz esan nion (sarri).

Bost badakik hik! (Gutxi dakiela).

Bost axola izan: arduratu ez.

Bostean egon: teman egon, setan egon, lehengo usteari eutsi. “Holako buru gogor! Beti bere bostean dago”.

Bereak eta bost entzun zituen: demasak entzun.

Pitagoratarten ustez 5 armoniaren eta orkaren zenbakia zen: 3+2. Bakotxa + bikotxa.

6.3. *Lapur-gaba balz onetan 2,1*

Ongi josten da lapur-gaua beltzarekin. Lapurrek nahiago izaten dute gau iluna, argia baino. Traiztoa, azpijkoka, saldukeria salatzen du.

Lorcaren bertsoak gogora datozkigu:

“En la luna negra de los bandoleros
cantan las espuelas”. (Canción de Jinete: 1860)

6.4. *Zaldia*

Zaldi zurixka (2,2): gau beltzaren eta “itxal baltzera”ren jazarroan dago. Zaldi zurixka bizitzaren sinboloa da. Zalduna,

ordea, hilik dago. "Zaldi zuritik erori", heriotzaren simbolismotzat jo ohi dute.

Euskal mitologian ere azaltzen da zaldi zuria (Ikus bibl. J.M. Barandiaran, I, 245 or.).

Zaldi beltza herioaren simboloa zen antzinateko grekoen artean. Zaldi zuria, berriaz, bizitzarena. Zaldi beltzarekin amets egitea heriotza hurbil zenuen seinale zen. Uste honi Alemanian eta Inglaterran ere eusten zioten. (Ikus Cirlot eta Chavalier).

Bestalde, Euskal Herriko baserri anitzetan "zaldi zuriaren gainera joatea" *lo egitearen ordez* erabiltzen dute, haurrentzat batez ere.

6.5. Itxal baltzera 5,2

Lauaxetak ongi ezagutzen zituen grekoen eta errromatarren zibilizazioa eta kultura, jesuita zelarik urte batzuk, "juniorado"an, eman baitzituen ikasketa klasikoak egiten (Ikus bibl. Garate, G.: "Lauaxeta Jesusen...").

Olerki honetako "itxal baltzera" orduan ikasitakoaren oihartzuna da.

Grekoen eta errromatarren ustez, bazen mundu bat, *itzalen mundua*, hain zuzen ere, hildakoaren arimak hartzen zituena.

Lur azpian omen zegoen. Norbait hil eta Hermes-ek haren arima itzalen mundura, hots, Hades-en erresumara eramatzen zuen.

Hermesek arima Caron-i eskuratzen zion. Caron-en eginkizuna Estijia aintzira igaro eta arima Hades-en erresumara eramatea zen.

Caron-ek eginkizun hori egiten du, hildakoari ahoan igaro saria ahoan ipini badiote eta hildakoaren gorputua ongi hilobiratua izan bada.

Ibaia igaro eta itzalen mundura heldu dira. Atarian hiru buru dituen Cerbero artzanora dago.

Erresuma honetako nagusiak Hades (Pluto) eta Proserpina dira (Ikus bibl. Gayley, Charles, 47 hurr.).

Pertsona bat ez hilobiratzea laido handia zen grekoen artean, haren arima beheko mundura jaitsi eta ezin baitzitekeen Hadesera heldu. Noraezean ibili behar betiko.

Olerki honetan ere badirudi artzaina ez dela hilobiratua izan, zalditik erori eta ahoz gora ilargiari *irriz* gelditu baita.

Artzainaren laidoa eta hondamena handiago izan dira, beraz, neskatzak gutxietsi eta hilobira gabe gelditu denez gero.

Ez hilobiratzeak ekartzen zuen laidoa *Antigona* tragedian ikus liteke. Antigonak neba hilobiratu egin du, bere osaba Creon tiranoak

debekatu arren, nebari egin ahal zioten irainik handiena ez hilobiratzea baitzen.

Creonek galdu egin dio zergatik hilobiratu duen neba. Ez ote zekien traidore bat zela eta gorrotatu egin behar zuela.

Zoragarria da ilobaren erantzuna: "Ez naiz sortua gorrotatzeko, maitatzeko baizik".

6.6. Ixarrok, bedartzak barna! 5,3

Izarrok gauari eta halabeharrari lotuak daude. Hemen ere badirudi halabeharrak heriotara jo duela artzaina, neskatzaren hitzen bidez.

6.7. Artzañorak, lats artera! 5,4

Bosgarren ahapaldian mintzatzaleak izadiko bividunei ere artzainaren hiltokira joan daitezen esaten die. Zakurrei ere bai.

Barandiaranek dioskunez, zakurra bakan agertzen da euskal mitologian. Lauaxetak Europako mitologiari eutsi dio. Goraxeago mintzatu gara "Cerbero"z.

Chevalier-ek honelaxe dio: "Il n'est sans doute pas une mythologie qui n'ait associé le chien, Anubis, T'ienk'uan, Cerbère,

Xolotl, Garm, etc., à la morte, aux enfers, au monde du dessous, aux empires invisibles que régissent les divinités chthoniennes ou séléniques. Le symbole très complex du chien est donc, à première vue, lié à la trilogie des éléments terre-eau-lune ... La première fonction mythique du chien, universellement attestée, est celle de **psychopompe**, guide de l'homme dans la nuit de la mort" (Ikus bibl. Jean Chevalier, 239 or.)

Mitologian zakurraren lehendabiziko eginkizuna hildakoari heriotzaren ilunpetan laguntzea da.

6.8. Iretargi-izpjai barre egijen 6,1

Zergatik egiten dio barre ilargiari? Ilargia, besteak beste, emakumearen eta aldakortasunaren sinbolo da. *Hilekoak* esan ohi da euskaraz, eta latinezko hizkuntzetan *menstr* erroa agertzen da.

Euskaraz badirudi ilargia heriotzarekin elkartzen dela. Lorcak ere bere "Romance de luna llena"n biak batera biltzen ditu.

Entzun Barandiarani:

"Es posible que el nombre de ILLARGI, que, según algunos significa luz de los muertos (de IL "muerto" y ARGÍ "luz") responda a la creencia de que la luna alumbría a las almas de los difuntos... Que la suerte de las almas de los difuntos tiene alguna relación con la luna, según la apreciación popular, parece desprenderse de la creencia de que el morir uno durante el cuarto creciente es considerado como buen augurio para la vida ulterior de su alma.

La luna es de género femenino. Se la trata como tal en las frases que se le dirigen. Es llamada abuela, del mismo modo que el sol." (Barandiaran, Ikus bib. 117-118 ort.)

6.9. Saspi arratsez 7,1 Saspi goxaldez 7,3

Euskaraz "zazpi"ren balio konnotatiboa sarri agertzen da.

Hamaikak eta bost-ek bezala, maiz "asko" edo "askotan"ren kutsua duka. Olerki honetan zentzu hori duka: Saspia arratsez... hau da, "maiz".

"Zazpitan erran neion".

Lotsagabearentzat: "Kopetan zazpi azal baditu horrek" era-biltzen dugu.

"Zazpi ahalak egin", zinez ahalegintza da.

"Zazpi deabru ikusi" eta asko sufritu sinonimoak dira.

Esapide hauetan ere aurkitzen dugu:

"Zazpi suete" edo "Zazpi sukalde", inoren lepotik bizi denaz esan ohi da.

"Zazpiak bat": Euskal Herriaren batasuna adierazteko moldea.

"Zazpi idiak" edo "Zazpi ahuntzak" gaztelaniazko Osa Mayor dira.

"Zazpi izarrak" edo "Zazpi lapurrik" edo "Zazpi ohoinak", berriz, Osa Menor.

Asteako egunak ere zazpi dira. Horregatik zazpi denboraren osotasunaren sinboloa dugu. Olerki honetan ongi heldu da zentzu hau.

Euskal mitologian Mari-k zazpi haur izan zituen. Eta Aitor-ek ere bai.

Errromantismoan eta poesia lirikan zazpi eta zortzi zenbakি polisemikoak dira. Oroit:

"Zazpi eihera baditut" kantu.

Eta Alostorrea kantu famatuan:

"Etxe eder leio bage aubetan
ez naiz sartu zazpi urte onetan".

6.10. Ardijak ekin eutsen negarrari... tordantxak ekin eutsen ixillari 7,1-3

Ardiak negarrez ez dira usu agertzen literaturan. Usoak, berriz, batez ere uso emea, sarri ikusten dugu negarrez, arra hil zaiolako.

6.11. Ura joan negar baten 8,3

Uraren murmuria negarraren hotsarekin ongi berdin daiteke.

6.12. Lorak ziran zimeldurik 8,4

“Loreak zimeldu” sarritan ikus litekeen motiboa da. Lorea aspaldidanik hartu ohi da bizitzaren laburtasunaren sinboloitzat.

Bibliaren hitzok ekar ditzakegu gogora (Isaias):

“Eta ahots batek: “Deiadar egizu!”. Eta nik erantzun: “Zer behar dut deiadar?”. “Edozein haragi belarra da, eta haren edertasuna landako lorea bezalakoa. 40,6

Belarra ibartu egiten da, lorea zimeldu, haren gainetik Jauñaren armasa igarotzen da. Bai, belarren pareko da gizateria. 40,7

Belarra ihartu egiten da, lorea zimeldu; gure Jaungoikoaren hitzak, berriz, betiko dirau.”. 40,8

7. Giro Errromantikoa

Beste artikulu batean esan nuen Lauaxetaren olerkigintzan, guztira, alderdi errromantikoa nabaria dela eta nagusi, beste jorea eta eraginik izan arren. (Ikus Bibl. G. Garate)

Okerki honetan ere garbi agertzen zaigu alderdi hori. Errromantikoen ezaugarri guztiak: sentimendua, maitasuna, iritsi ezinezko emakumea, halabeharra, heriotza, natura, animaliak.

Giroa iluna da, arima atsekabearen azpian dagoenez gero. Lauaxetak ongi elkartu ditu gaia eta lexikoa.

Gaua, sastakaiak, Herioa, espa, urruntasuna, itzal beltza, negarra, isila, lore zimelak gaiarekin oso ongi uztatzen dira eta ingurune lausoa, gandua sortzen dute. Errromantikoen gustuko giroa.

Erromantikoek natura bizirik ikusten zuten, gizakiekin hantxetan. Hemen ere artzaina naturaren eta animalien laguna da.

Zaldia, mendiak, bordak, lerrak, pagoak, izarrak, belartzak, ilargia, ardiak, tordantzak, loreak egunero ikusten eta maite ditu artzain batek.

Izadiak, beraz, eta animaliek negar egiten dute artzaina hil da ikusirik.

8. Hizkera

Olerki honetan euskara "Maitale kutuna"n baino errazago da. Neologismo gutxiago aurkitzen dugu. Aditz trinko artifizialik bat ere ez.

Eskuarki *Arrats Beran-go* hizkera uleterrazago da, Bide bariakekoa baino.

Lauaxetak euskara landua darabil eta belarriko goxoa. Puntuak lagundu egiten du goxotasun horretan. Hizkuntzaren gero eta jabeago egin da.

9. Iturriak

9.1. Lauaxetaren olerkia irakumi eta Federico García Lorca en "Canción de jinete" (1860) etortzen zaigu oroitxerena.

En la luna negra
de los bandoleros,
cantan las espuelas.

Caballito negro.
¿Dónde llevas tu jinete muerto?

... Las duras espuelas
del bandido inmóvil
que perdió las riendas.

Caballito frío.
¡Qué perfume de flor de cuchillo!

En la luna negra
sangraba el costado
de Sierra Morena.

Caballito negro.
¿Dónde llevas tu jinete muerto?

La noche espolea
sus negros ijares
clavándose estrellas,

Caballito frío.
¡Qué perfume de flor de cuchillo!

En la luna negra,
¡un grito! Y el cuerno
largo de la hoguera.

Caballito negro.
¿Dónde llevas tu jinete muerto?

(Ikus bibl.: García Lorca Federico, 43-44 orr.)

Alderdi asko berdintsuak dira bi poesietan. Zaldiak hilda-
ko darama, herioa, loreak, ilargia, izarrak.

Beste kontutan diferente dira.

Caballito negro/ Zaldi xuria. Lapurrik, bandido/artzaina.
Lorcak ez du maitasunik aipatzen eta ez du esaten zergatik hil
den gazkilea.

Arriskugarri izango litzateke Lauaxetak inspirazioa erabat
eta zuen Lorcaren poesiatik jaso zuela esatea. Ezagutzen zue-
la garbi dago.

9.2. Nire ustez, bai Lorcaren eta bai Lauaxetaren poesien itur-
burua, aldez behintzat, lehenagoko poetetan aurkitu behar da.

Batez ere biok Angel de Saavedrak 1809an Bazako ospitale-
an idatzitako poesia ongi ezagutzen zutela ziurtzat jo geneza-

ke. Lauaxetak Duque de Rivas oso maitea zuen, erromantiko-en artean gailurra jo baitzuen. Badakigu Lorcaren baitan Espainiako poesia klasikoak eragin handia izan zuela.

Honatx Duque de Rivasen poesia:

"Con once heridas mortales"

Hecha pedazos la espada,
el caballo sin aliento
y perdida la batalla,

Manchado de *sangre* y polvo,
en noche oscura y nublada,
en Antígola vencido
y deshecha mi esperanza,
casi en brazos de la *muerte*
el lazo potro aguijaba
sobre cadáveres yertos
y armaduras destrozadas.

Y por una oculta senda
que el cielo me deparara,
entre sustos y congojas,
llegar logré a Villacañas.

La hermosísima Filena
de mi desgracia apiadada,
me ofreció su hogar, su lecho
y consuelo a mis desgracias.

Registróme las heridas,
y con manos delicadas
me limpió el polvo y *la sangre*
que en negro raudal manaban.

Curábame las heridas
y mayores me las daba;
curábame las del cuerpo,
Me las causaba en el alma.

Yo, no pudiendo sufrir
el fuego en que me abrasaba,
díjele: "Hermosa Filena,
basta de curarme, basta.

Más crueles son tus *ojos*
que las polonesas lanzas;
ellas *birieron mi cuerpo*
y ellos el alma me abrasan.

Tuve contra Marte aliento
en las sangrientas batallas,
y contra el rapaz Cupido
el aliento ahora me falta.

"Deja esa cura, Filena;
déjala que más me agrava;
deja la cura del cuerpo,
atiende a curarme el alma".

(Kurtsibak nireak dira).

Duque de Rivasen poesia honesta argi eta garbi azaltzen da Lorcaren eta Lauaxetaren idea nagusia. Gorputzko zauriak baino maitasunak ariman egindakoak larriagoak direla.

Bestalde hemen ere ikusten dugu "noche oscura" (gaba baltz), el caballo sin aliento (zaldi zurixka arin ua), en brazos de la muerte, el lazo potro agujabla (Lorcaren "cantan las espuelas", "las duras espuelas"), la sangre que en negro raudal manaban (Lorca: "sangraba el costado").

Lauaxetaren eta hemengo zauriaren motiboa neskatzak dira, Rivasena nolabait ere zaurituaz errukitu bada ere: *De mi desgracia apiadada.*

Lorca da istorioa gehien aldatu duena, Romancero Jitanori dagokion bezala. Lapur eta ijitoen artean ari denez gero, maitasunak baino justiziak edo haserreak errazago hartzen dute hiltzeko eskua.

9.3. Bestela ere, maitasunez hil den gizakiari buruzko tradizioa oso aberatsa da Espaniako poesian. Tradizio hori ongi ezagutzen zuten bai Lorcak eta bai Lauaxetak.

Batzuetan artzain bat dabil zaurretua.

Honatx poesia batzuk:

PASTORCICO LASTIMADO

- Pastorcico lastimado
Descordoja tus dolores.
Ay!, Dios, que muero de amores!
- ¿Cómo pudo tal dolencia
lastimarte, di, zagal?
¿Cómo enamorado mal
inficiona tu inocencia?
De amor huye y su presencia:
no te engañen sus primores.
¡Ay, Dios, que muero de amores!
- Dime, dime, di, pastor,
¿Cómo acá entre estos boscajes
y entre estas bestias salvajes
os cautiva el dios de amor?
Sus halagos, su furor,
¿sienten también labradores?
- ¡Ay, Dios, que muero de amores!

(Ikus bibl. *Diez siglos de poesía castellan*, 79 or.)

Honako honetan ez da artzainik agertzen.

Por una vez que los ojos alcé
Dicen que yo le maté;
Ansí vaya, madre, virgo a la vigilia,
Como al caballero no le di herida.
Dicen que yo le maté.

(Ikus bibl. Dámaso Alonso 41 or.)

Beste honek ere gai bera jorratzen du.

Vos me matastes niña en cabello (ezkongai, ezkonduta ez dagoena)
 vos me habéis muerto.
 Niña en cabello,
 vos me matastes,
 vos me habéis muerto.

(Ikus bibl. Damaso Alonso 42 or.)

Ikus ezazu Gil Polo: *Canción Pastoril*, batez ere hasiera eta bukaera (*Diez siglos de poesía castellana* 119 or.)

Interesgarria da Jeronimo de Arbolanche-ren poesia hau ere:

Cantaban las aves
 con el buen pastor,
 herido de amor.

Si en la primavera
 canta el ruiseñor
 también el pastor
 que está en la ribera
 con herida fiera,
 con gran dolor,
 herido de amor.

Los peces gemidos
 dan allá en la hondura;
 el viento murmura
 en robres crecidos,
 los cuales, movidos,
 siguen al pastor
 herido de amor.
 Los claros corrientes,
 montes y collados,
 pradera y prados,
 cristalinas fuentes,
 estaban pendientes

oyendo al pastor
herido de amor.

(Cancionero y romancero español. 102 or.)

9.4. Maitasunaren zauriak zer egin lezakeen euskal olerki honetan ere ikusten dugu.

BIHOTZETIK MINEZ NAGO

Bihotzetik minez nago, ezta ageri zauririk:
Ikhusteria jin balekit nik nahi dudan barberik,
Bertan, bertan sendo naite eta libra gaitzetik.

(Ikus bibl. J. De Riezu, 116 or.)

Zaldiaren topikoa "Ahaire zahar huntan" aurkitzen dugu.

Zaldi xuri bat badit zure zerbütxüko
zük plazer düzünian biak juaiteko.
Etxekuer errezzü dolorez adio,
Ützülinen etzira mentüraz haboro.

(Ikus bibl. Riezu 220 or.)

10. Azken hitzak

Lauaxetaren olerki hau bikaina da. Ez da oso orijinala. Lauaxetak, baina, bere moldea eta itxura eman dio. Irakurri eta atsegin estetikoa sortzen zaigu. Ulertzeko ez dugu eragozpen handirik izan.

Ongi eraikitako olerkia dugu, simetria zosirik. Leloak arca-go laguntzen dio egituraren batasunari. Errima aberatsa daramil, musika bikainduz eta goratuz. Simbolismoa joria da.

Nik egituraren zerbaite aldatuko nuke. Ez nuke aurreneko ahalaldian argi eta garbi esango sastakaia hitzak izan direla. Azken-azkenerako utziz gero, tartean irakurlea jakin minez eongo litzateke eta olerkiak bere lirikatasunean irabazi egingo zuen.

Olerki honetan Lauaxeta goiko olerkari agertzen zaigu. Mai-la hori zinez agertuko du beste olerki askotan.

Bibliografía

- ALONSO, Dámaso: *Cancionero y romancero español*. Salvat, Madrid, 1969.
- AREJITA, Adolfo; ETXEIBARRIA, Igone; IBARRA, Jaione: *Mendebaldeko euskal baladak : antología*. Labayru Ikastegia. Bilbao Bizkaia Kutxa, 1995.
- ARRIAGA, Jose Luis: *Euskal mitología*. Gero, Bilbao, 1984.
- BARANDIARAN, José Miguel: *Obras completas. Diccionario ilustrado de mitología Vasca y algunas de sus fuentes*, Tomo 1, La gran encyclopédia Vasca, Bilbao, 1972.
- BILLERABETIA, Miren, KORTAZAR, Jon: *Euskal baladak eta kantu herrikoiak*. Centro de Lingüística Aplicada Atenea, 2002.
- BOBES NAVES, María del Carmen: *Gramática de Cántico. Análisis semiológico*. Universidad de Barcelonan, 1975.
- BOSOÑO, Carlos: *Teoría de la expresión poética*, (bi ale) Gredos, Madrid, 1970.
- BROOKS, Cleanth & Robert Penn Warren: *Understanding Poetry*, Henry Holt & Company, New York, 1978.
- CARRETER, Lázaro: *Estudios de poética. La obra en sí*. Taurus, Madrid, 1976.
- CHATMAN, Seymour: *The Language of Poetry*, University of Berkely, 1978.
- CHEVALIER, Jean, Alain GHEERBRANT: *Dictionnaire des symboles- Mythes, rêves, coutumes, gestes, formes, figures, couleurs, noms, noms*, Robert Laffont, Jupiter, Paris 1982.
- CIRLOT, Juan-Eduardo: *Diccionario de símbolos*, Labor, Barcelona 1982.
- COLEMAN, Alice C. And John R. THEOBALD: *Introducing Poetry*. Holt, N.Y. 1985.
- Diez siglos de poesía castellana*. Selección de Vicente Gaos. Alianza Editorial. Madrid, 1975.

- DURAND, Gilbert: *Las estructuras antropológicas de lo imaginario*, Taurus, Madrid, 1981.
- ELIADE, Mirce: *Tratado de historia de las religiones*, Madrid, 1959.
- FERGUSON, George: *Signs and Symbols in Christian Art*. Oxford University Press, 1985.
- GARATE, Gotzon, *Lauaxeta jesusen Lagundian*, Karmel 2003-4, 3-23.
- GARATE, Gotzon, *Lauaxetaren alderdi erromantikoa*, Karmel 2004-4, 3-22.
- GARCIA LORCA, Federico: *Canciones. Poemas sueltos. Varia*. Colección Austral, 1973.
- GAYLEY, Charles Mills: *The Classic Myths in English Literature and in Art*. Ginn & Company. Boston, 1934.
- GREIMAS, A.J & J. Courtés: *Semiotica. Diccionario razonado de la teoría del lenguaje*, Gredos, Madrid, 1979.
- HUNGER, Herbert: *Lexikon der griechischen und römischen Mythologie*. Rowohlt, Reinbek bei Hamburg, 1974.
- JAKOBSON R. *Essais de linguistique générale*, Paris, Editions de Minuit, 1970.
- JUARISTI, Jon: Euskal baladen lorea = Flor de baladas vascas, España. Ministerio de Cultura, 1989.
- KNICKERBOCKER, K.L. & H. Willard Reninger: *Interpreting Literature*, Holt, Rinehart & Winston, Inc., New York, 1974.
- KORTAZAR, Jon: "Lauaxetaren 'Artzain baten erjotzean'" in *Euskeraren iker atalak*, Bilbao, 1 zk. (192 uztaila), 53-64 or.
- KRAPPE, A.H.: *La Genèse des Mythes*, Paris, 1952.
- LAPESA, Rafael: *Introducción a los estudios literarios*, Cátedra, 1974.
- LAUAXETA. Urkiaga Esteban: *Arrats beran*. Euskal Editoreen elkartea. Donostia, 1991.
- LAUAXETA. Urkiaga, Esteban: *Olerkiak*. Jon Kortazarren sarrera. Erein, 1985.
- LAUAXETA. Urkiaga tar Estepan: *Olerki guztiak*, Aita Santi Onaindiaren bilduma. Bizkaiko Foru Aldundia, 1985.

- LAUAXETA. Urkiaga tar Estepan. *Azalpenak (1931-1935). Aukeraketa eta itzaurrea*: Jon Kortazar. Labayru ikastegia.
- LAUAXETA. Urkiaga tar Estepan: *Bide barrijak. Nuevos rumbos*. Verdes, Bilbao, 1931.
- LEWANDOWSKI, Th.: *Linguistisches Wörterbuch* (3 ale), UTB, Quelle & Meyer, Heilderberg, 1973-1975.
- LOTMAN Iuri, *La structure du texte artistique*, Gallimard, Paris, 1973.
- MAIN, C.F.: *Poems*, Wadsworth Publishing Company, Belmont, California, 1983.
- RIEZU, Jorge de: *Flor de canciones populares vascas*. Sendoa, Donostia, 1982.
- STAIGER, Emil: *Conceptos fundamentales de poética*, Madrid, Ediciones Rialp, 1966.

Gotzon Garate